

Ustelkeria eta Europa aurrez aurre izango dira Nazioari buruzko debatean


Gonzalez lehendakariak «gutxiago gastatzeko» eskatuko die herritarrei

Ustelkeria eta Europarekiko Bateratasun Plana aurrez aurre izango dira gaur eta bihar Espainiako Legebiltzarrean egingo den Nazioaren egoerari buruzko debatean. Gonzalezek ekonomiari buruz ihardungo du batez ere, eta oposizioak azken urtean agertu diren ustelkeria kasuak gogoratuko dizkio.

IKER ARANBURU / DONOSTIA

Ikusmin handia sortu du urtero Espainiaren egoera ekonomiko, politiko eta soziala zein den azaltzeko egiten den Nazioaren egoerari buruzko debatea. Joan den urtean, Alfonso Guerraren lehendakariordearen dimisioa oraindik guztion ahotan zegoela egin zuen bere hitzaldia Felipe Gonzalezek. Aurten bi dira gai nagusiak: bizitza politikoaren ustelkeria eta Europarekiko bateratasuna.

Felipe Gonzalezek bigarren gai hori izango du aipagai nagusia eta Gobernuak Europako batasun monetario eta politikoan sartzeko egin behar dituen ahalgin ekonomikoei buruz arituko da, hau da, Bateratasun Plana azalduko du. Hitzaldia prestatzen lagundu dioten Lehendakariatzako aholkularien esanetan, «espainiarrek gastu handirik egin gabe bizi behar» dutela izango da Gonzalezen mezua. Austeritate giro honetan Gobernuak ere hartuko duela parte —gastu publikoak eta batez ere sozialak murriztuta— ziurtatuko du lehendakariak. Makroekonomiako datuak beste baterako utziko ditu



Gonzalezek alde batera utziko ditu planaren datu makroekonomikoak.

EFE

ere Gonzalezek, «ezinezkoa delako hemendik lau urtetara gertatuko dena aurrikustea».

Bateratasun Planaren puntu batek behintzat, dagoeneko aur-

kako iritziak sortu ditu sindikatuen aldetik. Planak langabeziarako dirulaguntza jasotzeko gutxienezko epea urtebetez lan egin izatea finkatzen du, gaur eguneko

sei hilabeteen ordez.

Ustelkeriari dagokionez, Gonzalezek gai honi buruz hitzegingo duela baieztatu dute La Moncloako iturriek. Hala ere, gobernuburuak ukatu egingo du «ustelkeria oposizio eta komunikabideek diotena bezainbeste hedaturik dagoela». Oposizioak —eta batez ere PP eta IUk— ustelkeriari buruzko galderak egingo dizkietenez, Gonzalezek kasu horiei buruzko txostenak ikasi egin ditu azken egunotan, galdera zein kritikei hobe erantzun ahal izateko. Ustelkeria kasuak alderdi guztietan daudela gogoratu eta gero, epaileek kasu guzti horiek epaitzen ari direla aipatuko du Gonzalezek oposizioa ixilarazi nahian.

Hamazazpitik bost

Joan den urteko debatean, Diputatuen Kongresuak egindako ha mazazpi proposamen onartu zituen Felipe Gonzalezek. Hauetatik bost besterik ez ditu bete exekutiboak: Armada eta Soldadutzari buruzko eztabaidak egitea, Lanbide Heziketa plana, drogari buruzko eztabaida, Europako Komunitaterako batzorde mistoa egitea Kongresu eta Senatuaren artean eta Autonomi Hitzarmena.

Iazko debatean onartutako beste proposamenak gauzatzeke daude —greba eskubidearen araudi berria, azpiegiturarako aurrekontuen gehitzea, Kanariak eta EKren arteko harreman berezia, Ceuta eta Melillaren autonomi estatutuen onarpena, Alokairuen lege berria— edo porrot egin dute —Aurrerapenezko Hitzarmen Soziala adibidez—.

Felipe Alcaraz PCAko idazkari nagusi aukeratu dute berriz ere

MALAGA

Felipe Alcaraz, Andaluziako Alderdi Komunistaren (PCA) idazkari nagusia izaten segituko du, azken astebukaeran Fuengirolan egindako V Kongresuan bere zerrendak 'kritikoenak' baino boto gehiago lortu ondoren. Luis Carlos Rejon IU-CAko buruaren zerrenda alternatiboak ezin izan du Alcaraz ordezkatu, baina erakutsi du PCAREN barnean eztabaidak badaudela.

Alcaraz idazkari nagusi aukeratu dute berriro, bere zerrendak botoen % 73 (203 boto) lortu eta gero. Rejonek beste % 27 (74 boto) jaso du. Hasiera batean, bazirudien Antonio Romero diputatuak zerrenda berezi bat aurkeztuko zuela, baina azken momen-

tuan irabazlearen hautagaitzako bigarren lekuan agertu zen.

Kongresuak iraun zuen bi egunetan, bi taldeak batzeko saioak egon ziren, baina azken finean eztabaidak areagotu egin ziren. Eztabaida hauetariko bat izan zen zerrendak irekiak edo itxiak izan behar ziren aztertzerakoan. Fuengirolako batzarretan egon diren ordezkarien artean batzuek egoera honi buruzko kritikak bota dituzte. «Kongresuan pertsonalismoetan jauzi da jende guztia. Bakoitzak bere interesak defendatu ditu, eta ez alderdiarenak» zioen ordezkari batek.

Rejonen zerrendaren alde agertzen zen Jaeneko ordezkariak, Ernesto Caballerok adierazi zuenez «bi egun hauetan ez dira ezberdintasun politikoak ikusi,

Txinak Frantzia mehatxatu du Taiwan armak saltzeagatik

PARISE

Frantziak Taiwan gerra hegazkinak saltzen badizkio, Txinak «frantziarrei gogor erantzungo diela» mehatxatu zuten atzo herri honetako agintariek. Parise eta Taipeiko Gobernuak lortutako akordio baten bidez, Frantziak 'Mirage 2.000' ehizegazkinak salduko dizkio Taiwaneko Gobernuari.

Txinako Parlamentuaren prentsaurreko batean adierazitakoaren arabera, «lehenago Alemania eta Holandak izandako jokarari jarraitu beharko lioke Frantziak». Martxoaren 10ean Txinak Holandari 7 'Fokker-100' hegazkin erosi zion, azken honek Taiwanekin zuen akordioa apurtu ondoren.

Gutxienezko zerbitzuen aurka daude galiziar sindikatuak

SANTIAGO

Apirilaren 2rako Galizia osoan greba orokorrarako deia egin duten sindikatuek epaitegietara eramango dituzte Xuntak erabakitako gutxienezko zerbitzuak. UGT, CCOO, CIG eta nekazal sindikatuen iritiz, gutxienezko zerbitzuak «1988. urteko abenduko greban epaileek onartu ez zituztenak baino handiagoak dira» eta hortaz inolako zerbitzurik ez emateko prest agertu dira.



BIHAR iritsiko dira Madrilera Ponferradako (Leon) 450en bat meatzari, Villablino eta hiriburua elkartzen dituzten hirurehun kilometro inguru oinez egin ondoren. Meatzariak Claudio Aranzadi Industria ministroarekin elkarriketatu nahi dute, azken honek MSP meatzal enpresaren krisiari konponbideak eman diezazkion. Meatzarien martxak sindikatu eta alderdi politiko ugarien elkartasuna jaso du.



Felipe Alcaraz

baizik eta ezberdintasun pertsonalak». Caballeroren ustez, «normala da eztabaida egotea, eta honekin batera zerrenda ezberdinak aurkeztea; baina hemendik aurrera denok batera egin behar dugu lan IUREN proiektua aurrera eramateko».